

Ene lagun zaharra, ene Olentzero maitea:

Aspaldiko tradizioa da niretzat gabonetako gutun hau zuri idaztea. Dozenaka ezkutitz idatzi izan dizkizut nere bizitzan zehar, eta era batean edo bestean bada ere, beti izan dut zure berri nire kezkak argitzeko, nire ezinegona lasaitzeko, nire desira txiki eta handiak betetzeko edota neure mundu grina asetzeko.

Aurtengoan ere, beste guztietan bezala, paper aurrean eseri naiz zurekin une berezi hau konpartitzeko asmoz, eta horretan nenbilerā, gure arteko hainbat eta hainbat pasadizo eder bergogoratu ditut. Ene Olentzero kuttuna, txikitatik nire ondoan egon zaren hori, neure ilusioen lekuko izan zaren hori...

Badakizu plazer txikien maitale izan naizela beti, eta horiek egin dutela neure bizitza handi eta eder, baina gogoratzen al duzu garai batean nola amesten nuen? Gogoratzen al duzu zeinen gora egiten nuen hegan? Oroitzen al dituzu ene txikitako kezka goxoak? Ahaztu al duzu astronauta izan nahi nuen urte hura? Eta abeslari? Exploratzailer? Eta mediku? Argazkilari? Afrikar? Idazle? Eta zuk planetei buruzko liburu bat ekarri zenidan, gero mikrofono kutre maitagarri hura, kamera zahar bat, inora ere begiratzen ez zuen iparrorratza, atlasa, plastikozko estetoskopio hura, armonika, eta azkenik, idazluma eta papera. Eta ez ginen nekatzen. Nik amestu eta zuk, ahal zen neurrian ekarri, eta bestela moldatu, eta bestela beste zeozer ematen zenidan amesteko. Nik, trukean, irribarrez pasatzen nituen arratsak, aterkiez eta izaraz egindako gotorleku magikoetan, hurrengo abenturaren gosez, etorkizuna zain nuelakoan harengana korrika. Ametsak ziren neure motore, eta ilusioa nire erregai.

Gutun bat idatzi zenidan behin, zortzi urte nituela. Gogoratzen al duzu esan zenidana? "Pertsonak, amesten dutenaren arabera ezagutzen dira. Egin amets, piztu barneko sua". Geroztik, besteen ilusioei begira bizi izan naiz, nire mundu-grina berdinez bizi zirenen

bila, magia konpartizeko zain, hegan egiteko gogoz. Eta txoko batean, hor, inoiz ere ahaztu gabe, barneko sua, astiro-astiro, epel-epel, beti goseti.

Urteek aurrera egin dute eta dagoeneko ez naiz zortzi urteko ume hura. Hautzaroa babesten zuen kristala puxkatzen joan zen gutxinaka, eta mundua, geure su txikiei gupidagabe putz egiten zieten izakiz beteta dagoela deskubritu nuen. “Hori ametsa baino ez da, izan errealista, ametsak ez dira ia inoiz betetzen” eta putz egiten zuten.

Aterkiak jaso, izarak gorde, kamera ahaztu, armonika, eta planetei bizkarra eman nien banan-banan, itxurazko pertsona heldu arrunta bilakatuz. Ez dizut gezurrik esango Olentzero, iparra galdu dut maiz urte hauetan zehar nirea ez zen bide baten bila, ez dakit nor aukeratutako korronteari jarraika. Sinestunen gisa jokatu dut kanpotik, sekretupean zerura begira jarraitu izan dudan arren, kalean besteen begietan nireak ere baziren ametsak bilatu ditudan bitartean.

Garai batean oso bakarrik sentiarazi ninduen ametsik gabeko mundu gris horrek. Hori al zen hainbestetan desiratu nuen etorkizuna? Non zegoen mimoz zaindutako ilusio eder hura? Non geratu zen garena eta gehiago izatera heltzeko grina? Non ziren munduari beso zabalik eta beldurrik gabe maitasuna eskaintzeko prest bizi ziren izakiak? Eta batez ere: zein leku hartzen zuten mundu horretan planetek, kamerek, aterkiek, atlasek, idazlume edota Olentzerori idatzitako gutunek? Ez naiz honela bizi izan den bakarra; ingurura begiratzea besterik ez daukagu. Amore eman duten pertsonak inguratuta bizi gara, motorerik gabe, noraezean, itzali diren suen errautsek estalita. Zergatik ez ote naiz ni itzali?

Kezka une horietan sakon murgildu naizenetan, nire arima ameslariari gogor putz egin diotenean, neure azken indarrak agortuz zapaltzen saiatu direnean, orduan ezberdindu naiz besteengandik, nik zu baitzaitut Olentzero: irudimen askearen azken aterpe, nire suaren txinparten babesa, nire itxaropenaren motoreen erregai.

Agian behar nuelako, agian nahi izan zenuelako besterik ez, bigarren gutun bat idatzi zenidan une latz horietan betirako itzaltzeaz egon nintzanean. Gutuna eta oparia, opari berezi bat. Orduetik naiz ametsen matxinatua, orduetik naiz errealitatearen intsumiso.

Zuk salbatu ninduzun izaki grisen mundutik Olentzero. Hogeita zortzi urtez konpartitu dituzu nirekin zure txingarrak. Eskerrak eman nahi nizkizuke hain bizitza aberatsa izaten irakatsi didazulako. Bihar hilko banintz ere, zoriontsu nintzateke bizitako magia guztia barnean izanda, hain gora hegan egin izanda.

Zure azken gutuna daukat eskuetan, errealitatearen intsumiso bilakatu ninduen gutun hori hain zuzen. Aurten eskatu nahi dudan oparia, garai hartan mezuarekin batera ekarri zenidan berdina, mesedez. “Ba al dakizu zeintzuk diren sekula ere betetzen ez diren ametsak? Inoiz ere izaten ez direnak. Egin amets, ez dadila sua itzali”. Eta ondoan, ikatza, zure ikatza, nire pizgarria.

Aurtengoan, ez dut gotorlekurik behar; su indartsu bilakatu nau denborak. Oraingoan, amets egiteko gaitasuna galdu dutenengatik idazten dizut nik. Ezin digute hori kendu Olentzero, ezin digute ilusioz bizitzeko grina barnetik astindu, ezin dute bizi eder baten itxaropena haurtzarora mugatu. Esperientziak irakatsi dit ezin zaiola etorkizunari eserita itxaron. Mikrofonoak eskatu behar dira, eta atlasak, armoniak, estoskopioak eta ahal dela, unibertsoa desiratu behar da. Sua falta zaigu. Etxeetan, kaleetan, umeen barreetan, agureen egongelatan, gazteen desiratan... Ametsen sua falta zaigu.

Badakizu zer egin. Ekarriguzu erregaia Olentzero, emaiguzu ilusioz bizitzeko arrazoia beste behin; ekarri ikatza. Baina sua, Santurtziko ametsen sua, aurten hori, utzi nire esku.

Beti hegan, beti bero, beti bizi,:

Zure lagun ameslari matxinatua